

## Gerrilla maoista eta kontraintsurgentzia XXI.eko Indian

Txina komunistak Mao Zedong totem arkaiko izatera kondenatuta daukan bitartean, gerrilla maoistak sendotzen dira inguruetan. Nepalen berriketan agintera iritsi dira. Indiako Gobernuak berriz, ez du lortzen gerrillari “naxalitik” suntsitzerik, ez eta kontraintsurgentzia zikinez ere.

**ZAZPIREHUN MILIOI INDIAR** txirotasun erabatekoan bizi dira. Horregatik ez da harrigarri gerrillari maoista –“naxalita”– gero eta bortitzago aritzea, eta mugimendu hori izendatzea Indiako lehen ministroak “independentziaz geroztik nozitu dugun barne arazorik larriena”. Horrela laburbildu du Indiako gatazka odoltsua Cedric Gouverneur kazetariak. Gouverneur Indian izan da, saltsaren erdian, *Le Monde Diplomatique* aldizkariak bidalita, eta gerran parte duten alderdien iritzi eta kalkuluak bildu ditu, herritarrek nozitzen dituzten kalamitateak ikusteaz gain.

Chhattisgarh estatua bisitatu du Gouverneurrek. Indiaren erdialdean dagoen eskualde horretan burutu zuten maoistek iazko erasorik zalapartatsuenak. 2007ko martxoaren 15ean, Rani Bodli herriko koartela eraso eta 55 polizia eta miliziano hil zituzten oihanetik su egin zieten hiru ziento gerrillarik. Iaz iraila bitartean –iturritzat erabili dugun *Diplo* abendukoak da– kasik 500 heriotza eragin zituen gerrilla eta gobernuaren arteko gatazka, eta 2006an 750.

“Naxalita” izena gerrillari datorkio Indiako ipar-ekialdeko Naxalbari herriarenetik. Hemen, 1967an, nekazari maizterrek errebolta egin zuten ugazaba lurjabearen kontra; biltegian zeukan arroz guztia ostu zioten. Herritarrek oroimenean gordetzeko moduko akzioa. Ondoko urteetan ugariak

izan dira Indiako bazter askotan gerrilla talde txikiak. Horien oihartzuna arras handitu zen 2004an bi talde politiko nagusiek bat eginda Comunist Party of India (Maoist) eta bien adar armatuetatik People’s Liberation Guerrilla Army sortu zituztenean.

Urteotan naxalitek beren jarduera hedatu dute hamalau estatutara, gero hamaseitara, hogeita zortzitara... Indiak dituen 600 distriotoetatik 192tan erakusten dute muturra. Eta zabaltzen segitzen dute. Horregatik Delhiko agintarien kezka.

Kazetariak lortu du mugimenduko bigarren mailako buruzagi batekin egotea, buru gorenek segurtasun neurriengatik ez baitute zuzeneko harremanik nahi. “Gure helburua zera da: landa eremua kontrolatzea, Estatua ahula den lekuetan, eta gero zabalduko dugu indar herriko hori hirietaraino. Epe luzerako estrategia da. Baina mundializazioak eta bere ondorioek, txirotzeak eta injustiziek, prozesua bizkortzen dute”.

Aditu inpartzialagoekin ere mintzatu da Gouverneur kazetaria. Hauek esplikatu diote zein pazientzia handiz egin duten urteotan lan maoistek, herri bakoitzean aldarrikapen txikien eskan biltzen diren indar sozialetan sartuta. Estatua oihartzera indartu direla, alegia.

Batzuen ustez une honetan Indian 10.000 gerrillari armatu ari dira, eta

Argazki hau “chhattisgarh” sinatzen duen batek dauka ipinita Interneten. Indiako izen bereko estatuko herri batean dago aterea. Ikusten denez, etxeak suntsitu dizkiete –argazkigileak ez du esaten nor egin duen, edo Salwa Judum taldeko paramilitarrek edo gerrillari maoistek– eta biztanleak ihes egitera behartu dituzte. Argazkiko gaztea eta haurrak salbatu ahal izan dituzten altzari bakanekin noiz eramango dituzten zain daude. Alde bietatik gogortu da herritarren gaineko presioa hilabeteotan. Baserrietan geratu direnak gobernuarentzako susmagarri dira, maoistek laguntzen dietelakoan; eta herri berrietan bildutako erasotzen diete gerrillariak, horietako biztanle asko milizietan ari direlako. Herritarren lekualdatzea kontraintsurgentziako taktika zahar bezain eraginkorra da.

beste batzuen iritzian 20.000. Indiaren ekialdean hasi Nepal eta Himalaiatik eta kasik Madras hiriraino iristen den eskualde zabal batean dira indartsu. Gerrillak ukatzen duen arren, agintariek diote Sri Lankako Tigre Tamil-ek lagundu diete prestaketan. Dena dela, denek aitortzen dute naxalitek atelier propioetan ekoizten dituztela arma asko, leherkari, kohete eta beste. Ahaztu gabe erasoetan polizia eta militarrei ebasten dizkieten izkila eta munizioak.

Hein batean kontrolatzen dituzten eremuetan enpresa eta komertzioei “zerga iraultzailea” ordainarazten diete, aditu batzuen ustez etekinen %12aren inguruan dabilena. Comunist Party of India -Maoist-en (CPI-M) urteko aurrekontua 44 milioi euro inguruan ibil daitekeela diote aditu batzuek.

### Herritarren lekualdatze bortxazkoa

Naxalitek legitimotasunik ez diote aitortzen Indiako Estatuari eta hau irauli artean bakerik ez dutela emango aldarrikatzen dute. Ez dira eskualde edo herri baten nazio interesei lotzen, eta Indiako txiroenen artean egiten dute lan nagusiki. Beren kanpainetan behin eta berriro egiten diete dei Indiako 125 milioi dalit ukiezinei, jazartu daitezten.

Baserritar eta nomadez gain, hirietako txiroen artean ere gero eta samurrago pasatzen da maoisten mezua.



Askoren ustez India da mundializazioaren txapeldunetako bat, baina kopuru makroekonomikoek erakusten duten aberaste handia ez da iristen biztanlegoaren gehiengora: 400 milioi baino gehiago dira egunean dolar bakarrarekin bizi diren indiarrak.

Chhattisgarh estatuan bereziki indartsu ari dira naxalitak. Bertan izan da Gouverneur eta kontatu duenez 3.000 gerrillarik 25.000 kilometro karratu kontrolatzen dituzte. Arrakasta handia izan dute gerrillariak adivasi etniakoen artean. Oraindik oihanean ehizetik eta bilketatik bizi diren jendeok gehiengoa dira Chhattisgarhen, eta urte luzeak zeramatzen agintarien eta polizien desmasiak nozitzen.

CPI-Mkoek ekarri diete itxaropena adivasi askori... eta biziezina ere bai.

Ahaztu gabe horrelako talde armatu batek eragiten dituen kalteak –gazteak gerrara bortxaz eramatea, adibidez– Chhattisgarheko agintariek kontraintsurgentziako eskuliburu zaharretara jo dute, eta aurretik XX. mendean ingelesek Kenyan edo Hegoafrikan, frantsesek Madagaskarren edo Aljerian, militar latinoamerikarrek gringoen laguntzarekin El Salvadorren edo Kolonbian, eta beste leku askotan esperimentatutako sistemak jarri dituzte martxan adivasiaren eremuan.

Legedi antiterroristekin adierazpen askatasunari zintzurra ebakitzeaz gain, kontraintsurgentziako militarrek gehien maite dituzten taktikak abiarazi dituzte. Horien artean, populazioak lekualdatzea. Arrainak ura bezala gerrillak herriarren sostengua behar duenez, matxi-

noekiko sinpatia duten herriak eraso, suntsitu, susmagarriak masakratu, eta gainerako herritarrak egoitza berrietara eramane, sustraiaetik urrun agintarien menpeko bizi daitezten. Horrekin batera, gobernuaren militarrei gerrillariak ehizatzen laguntzeko milizia paramilitarrak sortu. Chhattisgarhekoak Salwa Judum du izena.

Agintarietako taktika zaharrok emaitza onak eman dizkiete, eta Salwa Judum milizien eredu beste izenekin ari dira sortzen Jarkhand, Andhra Pradesh, eta beste zenbait estatutan.

Kazetaria harritu da ikusi duelarik errefuxiatuentzako eraikitako etxe batzuk ohikoak baino gai gogorragoz daudela eraikita, porlanez eta. Giza eskubideen aldeko militante batek erakutsi dio esplikazioa. Chhattisgarhen ez dago jokoan gerrilleroak suntsitzea bakarrik. Hemengo zelai eta basoetako zorupean lehengai prezia- tuak daude, burdina batez ere. Industria handiak lur hauen gose dira, eta industria beharrean India, urteotan nagusiki zerbitzuetan handitu dena. Total, meategi eta industriatarako nahi dituztela adivasiak mendeotan nomada moduan bizi diren eremuok. Beraz, populazioak mugiarazita lurra libre uzten dira eta gainera etorkizuneko fabriketarako eskulana biltzen da herri berrietan.

Maoistek errepikatuko dute Nepaleko arrakasta? Ala Delhiko gobernuak itoko ditu? Tirabira horretan, familia askotan, seme bat gerrillan ari da eta bestea paramilitarrek. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



K A L I T A T E A

Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta eguzkitako betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL.: 943 420 624